

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroek gure enpresaren eta ez beste baten alde egiteko arrazoi nagusia argia da: gure herrian, Lazkaon alegia, ez dago beste kirol arropa dendarik, beraz, eskuragarritasuna izango litzateke. Gainera, eskainiko genukeen arropa aukera zabalaren barnean, gure arropa marka propioko arropak erosteko aukera edukiko lukete bezeroek, beraz esan daiteke, berritasuna ere izan daitekeela bezeroek gure enpresa eta produktuaren alde egiteko arrazoia.

Prezio aldetik lehiakideen pare jarriko ginateke, apur bat beherago agian, bertako produktua izanik garraioa ez litzatekeelako beste marketako produktuak garraiatzeko adina ordaindu beharko. Gainera, nahiz eta gure produktuaren prezioa berdintsua izan, herriko, hau da, KM0 izango litzatekeen produktua izanik gure aldeko hautua egingo lukete herritarrek, ziur!

Bestalde, internet bidezko denda bat sortuko dugunez, bezeroek ez lukete Lazkaon jarriko dugun denda fisikora hurbildu beharko. Honek, gure produkturen bat erosi behar duen bezeroari lana eta batez ere denbora aurreztuko lioke. Gainera, gure denda birtuala erabiltzea, nahiko lan sinplea izango litzateke, beraz bezeroari erabilerraztasuna transmitituko genioke.

Bestetik, internet bidez zein denda fisikoan salduko genukeen gure marka propioko arropaz gain, beste zenbait marketako kirol produktuak ere salduko genituzke, arriskuak murrizteko. Horrez gain, internet bidez bezeroek eskatutako produktuak garraiatzeko, banatzaile enpresa espezializatu bat kontratatuko genuke, gure lana eta denbora aurreztearren.

Prestazio aldetik, bi gune edukiko genituzke, herrian kokatutako bi lokal ezberdin hain zuzen ere. Batean denda egongo litzateke kokatuta. Bestean, gure marka propioko arropa sortzeko makinak edukiko genituzke. Gure produktua fabrikatzen gune honetan hasiko ginateke, eta amaiera arteko fase guztiak ere bertan beteko genituzke. Ondoren, arropa gure denda fisikora eramango genuke, eta banatzaileak bezeroek eskatutakoa euren etxean entregatuko luke.

Gure dendak eta batez ere markak estatusa irabazi heinean, arropa pertsonalizatua erosteko aukera eskainiko genieke bezeroei. Diseinuari dagokionez, guk geuk sortuko genituzke, baina, kolore sorta zabala eskainiko genieke bezeroei eta hemen sartuko litzateke pertsonalizatzeko aukera.